

BEASAINGO UDALA

Dirulaguntza deia: GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK (GLL) BANATZEKO UDAL IRIZPIDEAK 2025.

Argitara ematen da deialdiaren laburpena dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Testu osoa Dirulaguntzen Datutegi Nazionalen kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

1. Dirulaguntzaren xedea.

Gizarte-larrialdietarako laguntzak aldian-aldian emango ez diren prestazio ekonomikoak dira, eta horien hartzaileak hauek izango dira: gizarte-bazterkeriaren egoerak prebenitzeko, saihesteko edo leuntzeko beharrezko diren gastu espezifikoak—ohikoak zein apartekoak— aurre egiteko behar beste baliabide ez duten pertsonak.

2. Dirulaguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak

— Laguntza hauen onuradunek eta bere familia unitatea osatzen dutenek, eskaeran adierazitako betebeharrak eta ekintzetarako konpromisoak bete beharko dituzte.

— GLLen onuradunek beren familia-unitatearen beharrak asetzeko erabiliko dituzte beren diru-sarrerak, eta ezin izango dituzte beren baliabide ekonomikoak erabili familia-unitatetik kanpoko pertsonen laguntzeko.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa

<i>Kontzeptua/gastua</i>	<i>Eusko Jaurlaritza</i>	<i>Beasaingo Udala</i>
1.- Alogera -Etxebizitza osoa -Gela	300 € hilean 150 € hilean	300 € hilean 150 € hilean
2.-Kredituen interes eta amortizazioa /	300 € hilean	300 € hilean
3.- Energia -Elkarbizitza unitate 1 -Elkarbizitza unitate 2	125 € hilean 62,50 € hilean	50 € hilean 25 € hilean
4.- Ohiko etxebizitzaren erabilera eta mantenimendua -Elkarbizitza unitate 1 -Elkarbizitza unitate 2	900 € urtean 450 € urtean	900 € urtean 450 € urtean Desglosea: 4.1-Komunitatea: 75 € - 37,50 € hilean (elkarbizitza unitatearen arabera) 4.2-Etxeko aseguruia 100 € urtean 4.3-OHZ: 200 € urtean
5.- Etxebizitza berri batean instalatzearekin lotutako ezohiko gastuak -Elkarbizitza unitate 1 -Elkarbizitza unitate 2	1800 € urtean 900 € urtean	1800 € urtean 900 € urtean
6.- Oinarrizko premiak	2.500 € urtean	2.500 € urtean Desglosea: 6.1-Egunerokotasuneko gastuak : 6.1.1-Elikadura

		6.1.2-Beste batzuk 6.2-Betaurrekoak: Gehienez 250 € pertsonako 6.3-Dentista: Gehienez 600 € familia unitate bakoitzeko
7.- Altzariak eta elektrogailuak -Elkarbizitza unitate 1 -Elkarbizitza unitate 2	1.850 € urtean 925 € urtean	1.850 € urtean 925 € urtean Desglosea: 7.1-Altzariak: 1.000 € urtean 7.2 –Elektrogailuak : 850 € urtean: -Garbigailua: 300 € -Hozkailua: 400 € -Erauzgailua: 100 € -Labea: 250 € -Plaka: 150 € -Mikrouhina: 50 €
8.- Etxearen egokitzapen, konponketa eta instalazioak -Elkarbizitza unitate 1 -Elkarbizitza unitate 2	1.850 € urtean 925 € urtean	1.850 € urtean 925 € urtean
9.- Aurretiaz egindako zorpetzea / -Elkarbizitza unitate 1 -Elkarbizitza unitate 2	3.000 € urtean 1.500 € urtean	3.000 € urtean 1.500 € urtean

4. Eskaerak non eta noiz aurkeztu

- GLLak eskatzeko epea 2025-12-12 arte izango da.
- Eskaerak Beasaingo Udalean aurkeztu beharko dira.